

Joxemari Agirre

EAJKO KIDEA

Aukera galduak

Aukera galdu bat bezala kontsidera daiteke BBKren eta Kutxaren arteko bat-egite edo fusioa ezin ahalbidetu izana. Nik hala kontsideratzen dut. Horretaz ohartu ziren aurkariak biharamunean bertan, berriro ere prozesua martxan ipintzeko eskatu zutenean. Oso gutxi iraun zuen bezperako haien balentriak, egindakoaz damu zirela zirudien. PSE, PP, ELA eta ezker abertzaleak egin zioten muzin bat-egiteari, baina, proiektua bera baino gehiago nabarmendu zituzten proiektuaren beraren aurkezleak: EAJ eta EA. Betiko kontuari egin zioten kasu, hau da, ezadostasun politikoa edo sindikala gaitzetsi zuten diseinua bera baino gehiago.

Krisi ekonomikoa ez dakigu oraindik noraino iritsiko den. Dakigun bakarra da uste baino sakonagoa izango dela, eta dirudienez, uste baino gehiago iraungo du. Krisi ekonomikoan ez dago mobiolarik. Kate maila bakoitzak eragin behar dio motor ekonomikoari. Gaur erabakitzen denak ondorio luzeak ekar litzake gerora. Balizko erabakiak eta ez-erabakiak gerora etorriko dira.

Kutxa berri eta indartsu bat ez sortzea aukera galdua da, batez ere une ekonomiko larrietan. Euskal ekonomiaz eta kutxa enpresaz gehiago hitz egingo zela espero nuen nik, aurkariak ez dute sakondu egitasmoan. Tristeia bada ere, haietako inork ez du ezta-



ALEX LARRETXI

baidatu ez euskal ekonomiaz ez kutxa enpresaren etorkizunaz, enpresa ereduan ez da sakondu ere.

Bakoitzak bere astoari arre egin dio, *a priori* hartutako aurreiritziak erreplikatu. Kutxako protagonistak kontuan hartuko zirelakoan nengoen: bertako enpleguak eta bezeroak. Bertako langileak eta aurrezki emaileak bat-egitearen alde zeuden gehienbat. Hauek, dudarik gabe, nahiago dute kutxa indartsu bat. Proiektua aurrera eginez gero Estatuko hirugarren kutxa bihurtuko zen eta babestuago ikusiko zituzketen haien aurrezkiak. Bezero asko dira Kutxaren maileguak jasotzen dituztenak, eta hauek mailegu ahalmen edo gaitasun gehiago izan zezaketen kutxa indartsu batean. Tresna finantzario indartsua sortzeko zorian egon gara. Nork azaldu dezake gertatua ekonomia moteldu denean?

Krisialdi honetan, euskal familiek eta enpresek aukera gehiago izango zuten Estatuko hirugarren kutxa batekin. Kutxa indartsu batek mailegu ahalmen eta gaitasun gehiago duelako bakar batek baino. Nik ere nahi nuke Euskal Herriko bost edo lau edo hiru kutxek bat-egitea, baina bitik igaro behar da hirura, laura edo bostera iristeko. Birekin bat-egitea ezinezko izan bada, nola harago joan? ■

« Euskal ekonomiaz eta kutxa enpresaz gehiago hitz egingo zela espero nuen nik. Tristeia bada ere, haietako inork ez du eztabaidatu ez euskal ekonomiaz ez kutxa enpresaren etorkizunaz »

TXANDAN

Joseba Barandiaran

Merkeegi



Gure Euskal Herri honetan, merkeegia da jendea hiltzea. Merkeegia da enpresariak hiltzea eta merkeegia da langileak, etor-

kinak edo emakumezkoak hiltzea ere. Merkeegia da jendea bahitu eta urtetan giltzapetzea. Loiolan hil berri duten enpresariaren izena entzutean, Inazio Uria, gogoa Iñaki Uriarenganaino egin zidan hegan. Aita semeak ote ziren ere otu zitzaidan. Zein merkea den auskaldian bizi den jendearen eskutik, tiroak bota eta bizitza bat eta sendi bat suntsitzea. Zein merkea den auskalan-

diako epaileentzat, sinadura batekin bizitzak, sendiak, ametsak suntsitzea. Dispersioa ere, zein merkea den. Uria eta Korta eta beste asko dira horrelakoak pasa behar izan dituzten familiak. Korta bat ere bada, 18/98koen artean, 11 urteko espetxe zigorra duena; Mikel. Izan ere, krisi ekonomikoa aipatzen da baina, gure benetako krisia, baloreen krisian dago. Sufrimendua, besteena denean, ikusezin bihurtu dugu. Gizarte gaixoa gara eta eztabaida nekeza da: arerio eta mamuak noiznahi eta nonahi ikusten ditugu; pertsonak desagertu dira. Merkeegi. ■